

## Universités des savoirs situés - édition 2026

### Savoirs situés : Quelles écritures ? Quelles oralités ?

#### Appel à communication

**Dates :** 28, 29, 30 octobre 2026

**Lieu :** Bidarray, Pays Basque

**Langues d'usages :** français et basque

Le colloque *Savoirs situés : Se positionner ?* a pris place au Pays Basque à Bidarray les 30 et 31 octobre 2025. La richesse des rencontres a construit un souhait largement partagé d'ouvrir sur de nouvelles éditions. Ces universités des savoirs situés proposent d'interroger les liens qui unissent la science et la société. A partir de la valorisation de savoirs minorisés ou expérientiels : savoirs issus des groupes invisibilisés, discriminés, opprimés, des savoirs locaux ou militants, longtemps disqualifiés comme « non scientifiques », ces recherches, en train de se faire, interrogent les effets sociaux et politiques des savoirs produits. La prochaine édition aura lieu les 28, 29 et 30 octobre 2026 et a pour titre : *Savoirs situés : Quelles écritures ? Quelles oralités ?*

Dans la continuité de la première édition, en tenant compte des retours et des questionnements collectifs, l'édition 2026 se concentre sur les questions suivantes : comment valoriser les formes d'écritures alternatives, comment envisager les manières de penser la recherche avec *d'autres formes* de restitution ? Comment repenser collectivement l'éthique située ? Comment aborder les recherches participatives et collaboratives ? Comment mener des recherches non-extractivistes ? Au cœur de ces démarches inhérentes aux méthodes des savoirs situés : comment penser politiquement les recherches et comment les partager de manière la plus accessible possible ?

Le cadrage des rapports entre science et société mérite discussion. Il a pour référence implicite une science positiviste qui se manifeste dans le quotidien des citoyen·nes par les outils techniques qu'elle permet de développer ou les prescriptions claires qui émanent de ses résultats. Une science pourvoyeuse de solutions aux difficultés que nous vivons ; une science qui assure et qui rassure. Or, quels problèmes cette assurance et cette ré-assurance posent-ils, surtout si l'on tient l'objectif de (ré)engager des liens réciproquement nourrissants entre science et société ? Quel dialogue pouvons-nous en effet (r)établir si nous ne comprenons que partiellement les parties impliquées et donc les enjeux de la conciliation ?

Ces universités pluridisciplinaires proposent de contribuer à pallier cette difficulté en réunissant des chercheuses et chercheurs qui s'interrogent sur l'inscription de leurs travaux au-delà des cénacles académiques, au sein du monde dans lequel nous vivons. Réfléchir à l'inscription de ses travaux dans le monde renvoie, pour commencer, à envisager celle des auteur·ices qui produisent ces savoirs, lesquels étant, de ce fait, situés. Il s'agit par ailleurs de penser la circulation extra-académique des savoirs que nous produisons, leurs usages pratiques et abstraits, matériels et

immatériels. Pour rendre possible ce partage réflexif autour de l'inscription de nos travaux dans le monde auquel nous appartenons, qu'ils engagent des discussions sur nos méthodes ou nos productions théoriques, nous proposons de nous réunir de façon ouverte en s'adressant aux habitant·es du territoire.

Ces universités des savoirs situés seront organisées autour d'ateliers où chercheuses et chercheurs se rencontrent à différents moments de leurs apprentissage et pratiques du métier. Ils et elles pourront partager leurs travaux, réalisations et expériences sous différents formats. Ces journées ont lieu hors les murs, à Bidarray (Pays Basque), dans un lieu de travail et de vie collective.

Cette opération de réflexivité demande de s'arrêter sur la manière de produire les savoirs, d'en penser la circulation extra-académique, leurs usages pratiques et abstraits. Pour ce faire, nous proposons de nous réunir dans un espace de séminaires, sous forme d'ateliers de travail afin d'engager des discussions sur nos méthodes et nos épistémologies.

Ces journées s'envisagent en deux temps : des présentations de conférences faisant état de recherches en cours, des ateliers pour mettre en œuvre les écritures situées, hybrides et en co-construction.

À partir de ces réflexions et de ces méthodes, cette édition se divisera en trois thématiques principales :

- 1) **Écrire la recherche autrement** : Comment écrivons-nous les recherches, sous quelles formes, comment valoriser des formes d'écritures alternatives, des transmissions orales ? Comment co-construire les recherches avec les acteur·ices de terrain ? Quelle place est réellement faite aux voix des acteur·ices de terrain ?
- 2) **Éthique située et recherches non-extractivistes** : Comment interroger le terrain ? Est-il possible d'orienter des questions de recherche non productivistes et si oui, comment ? Quelle approche n'abîme pas ? Et qui la définit ? Quelle approche de la recherche ne reproduit pas la dévastation du monde ?
- 3) **Recherche participative et savoirs situés** : Comment mettre en place une méthodologie en accord avec ses positionnalités ? Quelles méthodes envisagées lorsque nous occupons un rôle dominant ? A contrario lorsque nous occupons une place dominée ? Comment s'oriente la recherche en fonction de ces positionnalités ?

Les formats de communication peuvent être libres : une présentation verticale, un atelier, une randonnée-discussion, des projections-débats, des ateliers d'écritures, des dispositifs participatifs.

Le colloque rassemble des [masterant·es](#), doctorant·es, post-doctorant·es, chercheur·es indépendant·es, chercheur·es titulaires.

### **Calendrier et modalités de proposition :**

Si vous êtes intéressé·e, merci d'envoyer aux adresses suivantes **une proposition composée d'un titre, et d'une présentation de 5 lignes**, en précisant *exactement* le format que vous souhaiteriez privilégier, **avant le 30/05/26**. Merci d'ajouter votre statut et institution de rattachement et votre situation de financement de recherche.

- Muriel Lazzarotto : [miourioul@gmail.com](mailto:miourioul@gmail.com) et Céline Mimault : [celine.mimault@etu.u-paris.fr](mailto:celine.mimault@etu.u-paris.fr)

### **Modalités :**

Le colloque aura lieu dans les salles de séminaire de la mairie de Bidarray.

L'hébergement se fera dans un gîte collectif avec repas collectif. Attention à ce stade nous ne connaissons pas le montant de nos subventions donc nous ne pouvons pas encore nous prononcer sur la prise en charge des frais de transports, d'hébergement et de repas.

### **Comité scientifique :**

Stef Assandri, artiste et chercheur·e indépendant·e

Emilie Balteau, sociologue et documentariste, CIREC

Lukas Barandiaran San Roman, travailleur à Biharamunen Lantegia - Atelier des Jours à Venir

Chama B'sibiss, doctorante en sociologie clinique et politique, LSCP, Université Paris-Cité

Alaia Cachenaute, doctorante en anthropologie, LISST-CAS, UT2J

Natacha Chetcuti-Osorovitz, enseignante-chercheuse en sociologie HDR, Qualifiée Pr, LCSP, Université Paris-Cité

Maylis Ferry - ingénieure de recherche, Tous Chercheurs, INRAE Grand Est / Nancy

Lux Goubayon, doctorante en sociologie, LCSP Université Paris-Cité et LEGS Université Paris 8

Théo Guillerminet, doctorant en amélioration des plantes, UMR AGAP Institut, CIRAD, Université de Montpellier

Lauréna Haurat-Perez, docteure en sociologie, chercheuse associée au centre Émile Durkheim, Université de Bordeaux

Élodie Hervier - doctorante en Arts du spectacle, Université Lumière Lyon 2 — Laboratoire Passages Arts & Littératures (XX-XXI)

Mathilde Kiening, docteure en recherches en psychanalyse, Chercheuse associée au CRPMS (EA3522), ATER Université Bourgogne Europe

Muriel Lazzarotto, étudiante en master d'anthropologie, Université Toulouse Jean Jaurès

Céline Mimault, doctorante en sociologie, LCSP Université Paris-Cité, S2HEP Université Claude Bernard

Ainhoa Ozaeta-Mendikute, enseignante-chercheure en sciences économiques, Université du pays basque, Bilbao

Stéphanie Pryn, sociologue MCF à l'Université de Lille, Clersé

Héloïse Russel-Holland, doctorante en sociologie, IDHES ENS Paris-Saclay et Département de Sociologie, UQÀM

\*\*\*

### **Kokatutako Ezagutzen Jardunaldia – 2026ko edizioa**

#### **Kokatutako ezagutza: zein idazkera? zein ahozketasun erabili?**

#### **Komunikazio deialdia**

**Datak :** 2026ko urriak 28, 29 eta 30

**Lekua :** Bidarrai, Euskal Herria

**Zein hizkuntzetan :** frantsesa eta euskara

*Kokatutako ezagutza: posizionatu beharra?* izenburu pean burutu genuen lehen jardunaldia Bidarrain. Iaz, 2025eko urriaren 30 eta 31n burutu ziren. Arrakastatsua izan zen oso, eta aurrerantzean ere jardunaldiekin jarraitzeko nahia eta beharra sortu zen. Halaxe adierazi zuten parte-hartzaile gehienek. Ezagutza kokatua hausnartzeko jardunaldiek zientziaren eta gizartearen arteko loturak aztertzea proposatzen dute.

Gutxietsitako eta esperientzietan oinarritutako ezagutzen baloraziotik abiatuta, ikusezin bihurtutako, diskriminatutako edo zapalduetako talde edo klaseen ezagutzak, tokikoak ala militanteak, luzaroan “ez-zientifikotzat” hartu direnak, baztertuak izan direnak, garatzen ari diren ikerketek sortutako ezagutzen ondorio politikoak eta sozialak aztertzen dituzte. Hurrengo edizioa 2026ko urriaren 28an, 29an eta 30ean burutuko da:

**Izenburua:** kokatutako ezagutzak: zein idazkera? zein ahozketasun?

Lehen edizioari jarraiki, eta jasotako iritzi eta galdera kolektiboak kontuan hartuta erantzun hauek aurkitu nahi ditu 2026ko edizioak: nola balioetsi idazkera alternatiboak? Nola pentsatu ikerketa

emaitzak beste modu batetara aurkezteko? Nola birpentsatu kolektiboki kokatutako etika? Nola landu ikerketa parte-hartzaile eta elkarlanekoak? Nola burutu ikerketa ez-estraktibistak?

Kokatutako ezagutzen metodoei berezkoak zaizkien praktiken erdigunean pausatzen da galdera hau: nola pentsatu ikerketak ikuspegi politikotik? Eta nola egin partekatuak eta eskuragarriak izan daitezten?

Eztabaidatu beharra dago zientziaren eta gizartearen arteko harremanen markoen inguruan. Harreman horiek, sarritan, zientzia positibistan oinarritzen baitira. Zailtasunei irtenbideak ematen dizkien zientzia da. Bizi ditugun zailtasunei irtenbideak ematen dizkien zientzia; ziurtatzen eta lasaitzen duen zientzia. Baina, zer arazo dakartza aseguru eta berraseguru horrek, batez ere zientziaren eta gizartearen artean elkarrekiko lotura elikagarriak (bir)konprometitzeko helburuari eusten badiogu? Izan ere, nola harremandu soilik gizartearen multzo bat hartzen badugu kontuan? Zein elkarrizketa berrezarri elkarlanerako apustuak partzialki baino ulertzen ez baditugu?

Zailtasuna guzti hauek gainditzeko helburua dute jardunaldi multidiziplinar hauek, eta, horretarako, akademiak haratago gogoetatu nahi duten ikertzaileak bildu nahi dira Bidarrain. Bizi garen munduaren baitan, errealitateari atxikitutako galderak pausatuko dituzten ikertzaileak dira bildu nahi ditugunak. Ekoizpen teoriko eta metodologikoak aztergai jarriko dituztenak, modu irekian eta lurralde honetako herritarrei zuzenduta arituko direnak gonbidatu nahi ditugu.

Kokatutako ezagutza jardunaldiak tailerretan antolatuko dira, non ikertzaileak ikaskuntzaren zein praktiken momentu ezberdinetan elkarlanean arituko diren. Lanak, esperientziak eta lorpenak edo emaitzak partekatzeko aukera izango dute, hainbat formatutan gainera. Akademiatik kanpo egingo da jardunaldia, Bidarrain (Euskal Herria), lan-giroan eta bizitza kolektiboa ahalbidetzen duen lekuan.

Gogoetatze ariketak ezagutza ekoizteko moduen inguruan pentsatzeko pausaldia eskatzen du, akademiatik kanpoko bidez aritzeko, eta bide horretan erabilera praktikoetan eta abstraktueta zentratzeko. Horretarako, mintegietako guneetan bilduko gara, lan-tailerretan, gure metodo eta epistemologiei buruzko eztabaidak burutzeko.

Jardunaldi hauek bi epetan egingo dira: martxan dauden ikerketen inguruko hitzaldiak batetik, eta kokatutako lanak ezartzeko atelierrak bestetik, izan hibridoak, izan koeraikuntzan daudenak.

Hiru ardatz edukiko ditu 2026ko edizioak:

- 1) Ikerketa beste era batera idaztea: Nola idazten ditugu ikerketak, zein formatan, nola baloratu idazketa alternatiboen formak, ahozko transmisioak? Nola eraiki ikerketak subjektu ikertuekin batera? Zein leku eskaintzen zaie? Aintzat hartzen al ditugu euren esanak?
- 2) Etika kokatua eta ikerketa ez-estraktibistak: Zelan galdekatu ikerketa eremua? Ikerketa galdera ez-ekoizleak bideratu al daitezke eta, hala bada, nola? Zein ikuspegik ez du ikerketa “bideratzen”? Eta norik zehazten du? Ikerketaren zein ikuspegik ez du munduaren suntsipena erreproduzitzen?
- 3) Ikerketa parte-hartzailea eta kokatutako ezagutzak: Nola uztartu metodologia eta kokapena? Zein metodo erabiliko ditugu menderatzaile rola betetzen dugunean? Eta mendekotasunean gaudenean? Nola bideratu ikerketa kokapen horien baitan?

Komunikazio-formatuak libreak izan daitezke: aurkezpen bertikala, tailerra, eztabaida, idazkera-tailerra, tresna parte-hartzaileak.

Besteak beste, masterreko ikasleak, doktoregaiak, post-doktoreak, ikerlari independenteak, ikerlari titularrak elkartuko ditu jardunaldiak.

### **Proposamenak egiteko modua eta egutegia:**

Interesa baduzu, komunikazio edo proposamenaren **izenburua** eta **5 lerroko aurkezpena** bidali 2026ko maiatzaren 30a baino lehen, lehenetsi nahi duzun **formatua zehaztuz**. Atxiki ezazu zure aurkezpena edo egoera, erakundea eta ikerketarako finantziazio-egoera.

- Muriel Lazzarotto, antropologiako masterreko ikaslea, Jean Jaurès Tolosako Unibertsitatea [miourioul@gmail.com](mailto:miourioul@gmail.com)
- Céline Mimault, soziologiako doktoregaia, LCSP Paris-Cité Unibertsitatea, S2HEP Claude Bernard Unibertsitatea [celine.mimault@etu.u-paris.fr](mailto:celine.mimault@etu.u-paris.fr)

### **Modalitateak:**

Jardunaldia Bidarraiko udaletxeko seminario geletan izanen da.

Ostatua taldeentzat egokitutako landetxean izango da, bazkari kolektiboarekin. Oraindik zehazteko dago diru-laguntzen zenbatekoa; beraz, oraindik ezin dugu erabaki garraio-, ostatu- eta bazkari-gastuei aurre egiterik izango dugun ala ez.

Batzorde Zientifikoa:

Stef Assandri, artista eta ikertzaile independentea

Emilie Balteau, soziologo eta dokumentalista, CIREC

Lukas Barandiaran San Roman, Biharamunen Lantegiko langilea (Atelier des Jours à Venir)

Chama B'sibiss, Soziologia kliniko eta politikoan doktoregaia, LSCP, Paris-Cité Unibertsitatea

Alaia Cachenaute, antropologiako doktoregaia, LISST-CAS, UT2J

Natacha Chetcuti-Osorovitz, HDR Soziologiako Irakasle Ikertzailea, Pr Kalifikatua, LCSP, Paris-Cité Unibertsitatea

Maylis Ferry, ikerketa-ingeniaria, Tous Chercheurs, INRAE Grans Est / Nancy

Lux Goubayon, Soziologiako doktoregaia, LCSP Paris-Cité-ko Unibertsitatea

Théo Guillerminet, Landareen hazkuntzan doktoregoa egiten duen ikaslea, UMR AGAP

Institutua, CIRAD, Montpellierreko Unibertsitatea

Lauréna Haurat—Perez, Soziologian doktorea, Émile Durkheim Zentroko ikertzaile elkartua,

Bordeleko Unibertsitatea

Élodie Hervier, Arte Eszenikoetako doktoregaia, Lumière Lyon 2 Unibertsitatea — Passages

Arts & Literatures laborategia (XX-XXI)

Mathilde Kiening, psikoanalisian Doktore Ikertzailea, CRPMSri Elkartutako Ikertzailea (EA3522), ATER Borgoina Europa Unibertsitatea

Muriel Lazzarotto, antropologia masterreko ikaslea, Jean Jaurès Tolosako Unibertsitatea

Céline Mimault, soziologiako doktoregaia, LCSP Paris-Cité Unibertsitatea, S2HEP Claude Bernard Unibertsitatea

Ainhoa Ozaeta-Mendikute, Ekonomia irakaslea eta ikertzailea, EHU, Bilbo

Stéphanie Pryn, Soziologoa, Lilleko Unibertsitateko irakasle titularra, Clersé

Heloise Russel-Holland, soziologiako doktoregaia, IDHES ENS Paris-Saclay eta UQÀM-eko Soziologia Saila